

EAEko HIZKUNTZA POLITIKA: EUSKARAREN ERABILERA OFIZIALETIK GIZARTE ERABILERARA¹

M. Karmen Garmendia

O. SARRERA

Eusko Ikaskuntza bildu gaitu egunotan Gasteizen gure Hezkuntza alorreko hainbat arazo, alderdi eta ikuspegi ausnartzeko asmoz, sorreratik bertatik datorkion ildoari jarraituz. Poztekoa da oso 1918 eta 1936a bitartean Eusko Ikaskuntzaren baitan hezkuntza elebidunari buruz egindako kalitatezko lan aurrerakoi, miresgarri eta guztiz errespetozkoa gaur aipatzeko aukera izatea. Izan ere eskuartean ditugun egitasmoen aintzindaritzea, aipatutako urte hoietan Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza Batzordetik lan egin zutenei aitortu beharrean gaude. Zilegi bekit eskerrik onena adieraztea.

Hamaika urte pasa dira Eusko Legebiltzarrak 1982an Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legea onartu zuenetik. Gure hizkuntzaren historian, lehenengo aldiz, epe honetan bizi izan da honelako hizkuntza politika euskararen alde. Gaur egungo biztanlegoaren eta euskaldungoaren kopurutik handiena hartzen duen Euskal Autonomi Elkartearen izan du politika horrek garapenik zabalena. Guzti horregatik beharrezkoa dugu orain arte egindakoa ebaluatu eta eginkizun dagoena sakonki aztertzea.

Euskararen Legeak agindutakoaren ildotik, bi izan dira, besteak beste, EAEko hizkuntza politizaren ardatzak urte hauetan zehar: umeen, gazteen eta helduen artean euskararen ezagutza hedatzea batetik eta euskararen erabilera ofizialaren lehenengo urratsak ematea bestetik.

Irakas-sistemari esker, asko gehitu da neska-mutilen artean euskararen ezagutza. Horren adierazgarria da, gaur egun derrigorrezko eskolaldian dauden ikasleen artean, alegia, 6-14 urte bitarteko neska-mutilen artean, %40 inguruan egon daitekeela euskaraz ondo hitzeginen dakitenen portzen-

taia. 1991 ko erroldako emaitzetatik datorren ondorioa dugu hau. Aldaketa handia da, beraz, urte gutxitan adin talde gazteenetan eman dena.

Kontuan hartzekoa da baita ere, Euskal Herriko Unibertsitatean egin den ahalegin eskerga. Izan ere, unibertsitate publikoak eskaintzen dituen ikasgai guztien artean, herena euskaraz irakasten da gaur egun.

Euskararen ezagutzari buruzko aipamenekin amaitzeko, ez da ahaztu behar egun EAEko euskaltegietan berrogeitamar milatik gora lagun ari direla euskara ikasten.

Euskararen ezagutza hedatzeaz gain, EAEko hizkuntza politikak euskararen erabilera ofizialean jarri du arreta berezia. Demokraziaren berreskupanarekin batera, euskarari aitormen ofiziala eman zitzaion. Aitormen ofizialaren islada irakaskuntzan ezezik Administrazio Publikoetan ere nabarmendu izan da, dela errotulazioaren bidez, dela agiri ofizialak elebietan argitaratuz, dela Administrazio Publikoetako hizkuntza plangintza martxan jarritz. Administrazio Publikoetako hizkuntza plangintzaren bidez, dagoeneko lau mila funtzionario baino gehiago daukate hizkuntza eskakizun bat egiaztatuta.

Horixe, labor esanda, orain arte egina. Ondoren, gaur egungo egoera soziolinguistikokoaren funtsezko mekanismoak aztertzeari ekingo diogu eta, diagnosi horretan oinarrituta, aurrerantzeko proposamenak azalduko ditugu.

1. IKERKETEN EMAITZEK ERAKUSTEN DUTENA

Euskal Autonomi Elkartearen euskararen egoera nolakoa den azaltzeko eskuartean ditugun ikerketa berrienetako zenbait datu aipatuko ditugu: batetik, 1991an, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 16 urtetik gorako biztanleriari egindako soziolinguistikazko inkesta eta, bestetik, 13 eta 14 urteko gaztetxoei buruz 1991ko erroldak zein oraintxe burutzen ari garen bestelako ikerketek erakusten digutena.

1. Imanol Agote Alberro eta Xabier Aizpurua Telleriari, HPINko teknika-riak biak, esker berezia zor diet egindako hausnarketa eta idarokizunengatik.

Ikerketa horien arabera bi ondorio nagusi azpimarra daitezke hizkuntza ofizial bien ezagutzari dagokionean:

- gaztetxoaren arteko euskaldunen portzentaia gizarte osokoarena baino askoz ere altuagoa dela baina
- gaztetxo elebidunen artean nagusi direla erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten dutenak.

Hain zuzen ere, 16 urte edo gehiagoko biztanlerian euskaldun elebakarrak %1 eta elebidun funtzionalak %23 diren bitartean, 13 eta 14 urteko gaztetxoaren artean %40a baino gehiago dira elebidun funtzionalak edo euskaraz eta gaztelaniaz ongi edo nahikoa ongi hitz egiteko gai direnak.

Baina 16 urte edo gehiago dituztenen artean %35ak euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten duen bitartean, gaztetxoaren artean, ia erdira jaisten da portzentaia hori (%18,6), guztiz nagusi direlarik erdaraz euskaraz baino errazago hitz egiten dutenak (%55,8).

Bestalde, 1991ko soziolinguistikazko inkestak haxe dio euskararen erabileraren gehien eragiten duten arrazoi edo faktoreez:

- Euskararen erabileran egiturari dagozkion faktoreek (norberaren harreman sarea eta gune soziolinguistikoa) norbanakoari dagozkionek (euskaraz hitz egiteko erraztasuna) baino eragin handiagoa dutela.
- Familian, lagunartean nahiz lanean euskara erabiltzeko beharrezkoa dela solaskideen arteko denek edo ia denek euskaraz jakitea. Esate baterako, lagunartean, inkestatutako euskaldunen %75ak nagusiki euskaraz hitz egiten badu ere bere lagunartean denak edo ia denak euskaldunak direnean, erabilerari hori erdira jaisten da euskaldunak erdiak baino gehiago direnean (%38) eta hutsaren hurrengoa da euskaldunak erdiak bakarrik direnean (%8). Horrenbestez, euskararen erabilerari ziurtatzeko, bada norberaren harreman sarea ezinbestekoa den gutxienezko maila, agian, soziolinguistikazko atalase maila edo izenda daitekeena.
- Euskaraz hitz egiteko beharrezkoa dela euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago hitz egitea. Hain zuzen ere, lagunarteko adibidearekin jarraituz, euskaraz erdaraz baino errazago hitz egiten duten euskaldunen gehiengoak (%83) nagusiki euskaraz hitz egiten duen bitartean, euskaraz erdaraz bezain erraz hitz egiten dutenen artean ez dira erdira ere iristen (%38) nagusiki euskaraz ari direnak; azkenik, erdaraz errazago hitz egiten dutenen %13a bakarrik ari da nagusiki euskaraz bere lagunartean.
- Gune soziolinguistikoko bakoitzean euskaraz duen indarrak eragin handia duela euskararen eguneroko erabileran. Euskararen erabilerarik altuena, jakina, gune soziolinguistikorik euskaldunenetan gertatzen da.

Ondorio horien arabera honako gogoeta hau egin nahiko genuke: ezagutzan egin dugun eta etengabe egiten ari garen aurrerakada ikusgarriak, gaur gaurkoz, ez dakar eta, datozen urteotan ere, nekez ekarriko du berekin erabileraren aurrerakada ikusgarriak.

2. ERABILERAREN FAKTORE ERAGILEAK

Batetik, euskararen ezagutzaren aurrerakada ikusgarri hori eskolari zor zaio ia-ia guztiz eta ez familia bidezko transmisioari. Baina euskaraz edo erdaraz hitz egiteko erraztasuna, batez ere, lehen hizkuntzaren baitan dago. Familia da euskara ikasi eta sendotzeko gunerik apropos eta naturala.

Bestalde, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak egindako soziolinguistikazko inkestak erakutsitakoa beste ikerketek ere berretsiko balute, alegia, euskara erabiltzeko norberaren harreman sarea badela soziolinguistikazko atalase mailaren² moduko zerbait egiaztatuko balitz, euskararen ezagutzan aurrerakada ikusgarriak gertatu arren, datozen urteotan, nekez gertatuko da euskararen erabileran aldaketa azpimarragarriak geure harreman sareetan. Hau da, geure familian, lagunartean, lankideen artean, auzoan, eta abar, denak edo ia denak elebidunak izatea lortu bitartean.

Era guztietara, kontutan hartu behar da, beti horrela ez bada ere, norberak aukeratu ohi duela bere harreman sarea.

Beraz, hasieran aipatu ditugun emaitzak kontutan izanik haxe baiezta daiteke: egiturari dagozkion faktoreak kontutan hartzen badira (norberaren harreman sarea eta gune soziolinguistikoa), gaztetxoak 16 urtetik gorako jendea baino askoz ere egoera hobean egongo direla euskaraz hitz egiteko, baina norbanakoari dagozkion faktoreen ikuspegitik (euskaraz hitz egiteko erraztasuna), berriz, kontrako gertatzen dela. Era guztietara, egiturari lotutako faktoreen ikuspegitik egoera egungoa baino hobea izango den arren, urteak pasako dira oraindik euskarazko erabilerari bermatzeko beharrezkoa den atalase mailara iritsi bitartean.

3. EGOERA HORRETRAKO EGINKIZUNEN PROPOSAMENA

Egindako diagnostikoak argi eta garbi erakusten du, azken urteotan, euskararen erabilerari normaltzeko lan eskerga egin dela baina, halere, asko dela oraindik eginkizun dagoena. Datuekin frogatu da hizkuntza gutxiengotua indarberitzea urteetako eta belaunaldietako lana dela, alegia, ez dela gaurtik biharrera lortuko den zerbait. Horrexegatik, egoeraren honelako diagnosiak egiteak inor etsipenera eraman dezakeela jakinik ere, beharrezko irizten diogu egin dugunaren eta egiten ari garenaren gero eta ebaluazio zehatzagoak egiteari, ez, lanaren tamainaz jabeturik, jarritako helburuei uko egiteko, horiek berretsi ondoren zehurtiaz jokatzeko baizik. Euskararen erabilerari dagokionean, batetik, helburu mailakatu eta lorgarriak jarri behar dira eta, bestetik, jarritako helburuak erdiesteko ikerketa empirikoetan oinarritutako estrategia berri osagarriak ezarri.

Belaunaz belauneko euskararen transmisioa bermatzea da gure helburu nagusia. Helburu, benetan, anbizioa, zaila, epe luzerakoa eta, guzti horrexegatik, behin eta berriro, etengabe, berrikusi eta berretsi beharrezkoa. Ezinbestekoa da beraz, asmoz eta jakitez, jokatzeko, hau da, unean uneko lehentasunak, proposatzea. Lehentasunak, berriz, honako hauek lirateke:

- gero eta gehiago diren elebidunen euskarazko gaitasuna hobetzea edo kantitatetik kalitatara salto egitea, hizkuntza jatorrian eta zuzentasunari ezezki erraztasunari ere garrantzia emanez, eta
- etengabe zerotik hasia nahi ta nahiezkoa gerta ez dadin, euskara ere belaunaldi berri honen etxeko hizkuntza izatea; azken finean, euskara, beren seme-alaben lehen hizkuntzetako bat izatea.

2. Atalase mailak zera esan nahi du: HPI Nak 1991ean egindako ikerketaren arabera eta, aldezturik, R. Bourhisek Quebec-en egindako bi ikerketen arabera, hizkuntza gutxiengotuaren erabilerari bermatzeko beharrezkoa dela, dena delako esparru edo harreman sarea, solaskideen arteko denek edo ia denek (%80tik gorako portzentaia) hizkuntza hori hitz egiten jakitea.

Esan dugu gazte elebidunen euskarazko gaitasuna hobetzea dela lehentasunetako bat. Baina gorago ikusi denez hori ez da eskolako klasean bakarrik lortuko. Eskolak eman die gazte hauei euskaraz egiteko oinarriko gaitasuna, baina eskolari ezin zaio eskatu gazte hauek euskaraz erdaraz bezain erraz edo errazago hitz egiteko gaitasuna bermatzea. Esan denez, gaitasun hori gertuko komunitatean egiten den eguneroko erabilerak bakarrik berma dezake, hau da, euskaraz hitz egiteko trebetasuna, familian (baina gazte elebidun hauen famili askotan ezinezkoa da euskaraz hitz egitea, beste senideek ez bait dakite euskaraz), lagunartean eta auzoan edo kalean euskaraz hitz eginez bakarrik lor daiteke.

Galdera, beraz, bistakoa da: nola areagotu gazteengan euskararen erabilera? Erantzuna hauxe da: gazteek eskolaz kanpo, normalean, egiten duten guztia euskaraz egin ahal izan dezaten aukerak eskainiz. Asko da aukera eskaintze horretan oraindik egiteko dagoena.

Erakunde desberdinetatik, gaurregun, gazteentzat egiten diren ekintzak (ikasgelatik kanpoko ihardun osoa: jangela, eskolaz kanpoko ekintza osagarriak eta eskolaz kanpoko iharduna bera akademitan nahiz aisialdirako ekintzetan, kirola eta abarretan) nola antolatzen diren aztertu beharra dago. Ekintza guzti horiek ez al dira, maiz askotan, gazte horien hizkuntza egoera kontutan izan gabe antolatzen? Irizpide horri ez al zaio nagusitzen zerbitzua eskaintzen duenaren hizkuntza gaitasuna edo hizkuntzarekiko jarrera? Ez al gara inertzia eta erosotasunaren morroi izaten?

Kontutan izan, esate baterako, egiten ari garen ikerketek erakusten dutenez, 13 edo 14 urteko gazteetxoek %46ak ongi edo nahikoa ongi hitz egiten dakiela euskaraz, %38ak zertxobait eta zertxobait baino gutxiago %16ak bakarrik.

Inertzia eta erosotasunaren zaina alde batera utzi eta euskararekiko dugun jarrerari begiratzeko ordez geure jokabidea da aztertu behar duguna, egiaz uste bait dut geure kontzientziari astindu on bat emateko garaia iritsia dela.

4. NORBERAREN JOKABIDEAREN BAITAKO DISKURTZO MOETA(K)

Zuzentzen dudana idazkaritzako lankide batek, duela gutxi, idatzi duenez, egoera sozialen baldintzapean sortu eta garatzen dira norberaren baitan hezurmamitzen diren jarrerak. Jarrerak sozializazioaren ondorio dira hein handi batean, gizartean nagusi diren balore eta norma sozialen fruitu.

Jarrerak gizarteak zerbaiten aurrean duen balorazioa isladatzen dute norberarengan. Ez, ordea, norberaren inolako konpromiso konkreturik. Hori dela eta, ez dago lotura zuzenik jarreraren eta jokabideen artean. Ezertan gauzatu ahal izateko, jarrerak *motibazio sendoa* eta *harreman sarearen soziolinguistikazko atalase maila* behar dituzte.

Jarrerak bi maila edo osagai dituzte: maila kognositiboa (pertzepzioa, iritziak, estereotipoak) eta maila afektiboa (emozioak eta sentimenduak). Bi maila hauek *diskurtsoe* n bidez egituratu eta sistematizatzen dira. Euskal Herriari dagokionez, lau diskurtso mota jo ditugu errepresentatiboentzat, Errealitatearen Diskurtsoa, Desioaren Diskurtsoa, Ezagutzaren Diskurtsoa eta Ekintzaren Diskurtsoa deitu ditugunak:

- **Errealitatearen Diskurtsoa** pragmatismo akritikoaren diskurtsoa da. Bere muina honela laburbil daiteke: euskara dagoen egoeran baldin badago, gutxi ezagutu eta erabiltzen den hizkuntza baldin bada, euskaldunen beraien errua eta interes faltagatik izan da azken finean. Egoera soziolinguistikoaren konstatazioa egiten da, egoera horren zergatiak aztertu gabe.

- **Desioaren Diskurtsoa** diskurtso testimoniaba da batez ere. “Belaunaldi galduaren” diskurtsoa da orohar. Euskara maite dute eta bere desagertzea kultur galera handizat hartuko lukete. Euskararen egungo egoeraren erantzukizuna arrazoi historikoei leporatzen diete, ez euskaldunei. Euskara ikasi eta erabiltzea gustatuko litzaieke, baina beren bizitzen lehentasunetan sartzen ez denez, ez dute ikasten. Lortu ezinezko helburua iruditzen zaie. Horregatik deitzen diote “belaunaldi galdua” beren buruari. Belaunaldi gazteengan jartzen dituzte euskararekiko itxaropen guztiak.

- **Ezagutzaren Diskurtsoa** euskaldun pasiboen diskurtsoa da. Euskaraz badakite eta jakite hutsa nahikoa da beren burua euskalduntzat jotzeko. Euskara darabilten iharduna ez oztopatzeke ikasi behar dela gure hizkuntza diote euskaldun hauek. Beren jokabidea euskaraz bizitzea hartu dutenen erabakiaren ondorioa da. Euskara darabilten euskaldunekin topatuko ez balira erdara hutsez aritzeko joera izango lukete.

- **Ekintzaren Diskurtsoa** euskara gero eta gehiago zabal dadin lan egiten dutenen diskurtsoa da. Euskaldun kontzienteen lideratzen duten multzo honetan euskaraz modu naturalean eta kontzientzia esplizituri gabe bizi diren euskaldunak batetik, eta euskara oraindik jakin ez arren bere sustapenaren alde apostu tinkoa egin dutenak bestetik sar litezke epe motz edo ertainean.

Zalantzarik gabe, *ekintzaren diskurtsoa* da hizkuntza jokabideetan eraginik zuzenena duena eta erakundeetatik zein gizartetik bertatik bultzatu beharrekoa.

Atal honekin amaitzeko gogora dezadan jarrerak, ezertan gauzatu ahal izateko, *motibazio sendoa* behar dutela, besteak beste.

Motibazioa zerbait egitera mugituz erazten gaituen bultzagarria da. Motibazioetan motibazio integratzaileak eta instrumentala bereizi ohi dira. Motibazio integratzaileei dagokionez, sinbolikoa, pragmatikoa, kulturala eta politikoa dira aipagarrienak³.

Bereizketa hau egitea erabat funtsezkoa da, motibazio mota bakoitzaren ondorioa hizkuntza jokabidean zeharo ezberdina delako. Motibazio integratzailea (hots, barne motibazioa) duten hiztunen jarrerak eta jokabidea motibazio instrumentala bakarrik dutenena baino askoz ere positiboagoa da. Azken hauek, beren helburua lortu ondoren (lanpostu berria edo lanpostu boba, gehienetan), euskara ez erabiltzeko joera izango dute. Ondorio gisa, baieztatu daiteke, euskararen gizarte egoerari dagokionez, motibazio integratzaileak direla eraginkorrenak, gehien indartu behar direnak, eta motibazio instrumentala integratzaileak indartzen dituen heinean sustatu behar dela.

Eta euskara ikasteko motibazioez esandakoa, motibazio instrumentales esandakoa alde batera utzita, euskararen erabilera sustatzeko motibazioei buruz ere adierazi beharko litzaiteke.

3. Motibazio sinbolikoa euskara euskal nortasun kolektiboaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat da. Motibazio pragmatikoak gizarteratzearen zati bat bederen euskaraz egitea eskatzen du. Motibazio kulturala kultur interesetik abiatzen da, hizkuntza kultura horren elementu behinentzat jotz. Motibazio politikoa, azkenik, ideologia edo proiektu politiko batean sostengatzen dena da.

Motibazio instrumentala, motibazio integratzaileek ez bezala, norberaren estatus sozioekonomikoa hobetzea du xede. Kanpotik ezarritako motiboa da, ez hiztunak askatasunean aukeratu eta barneratu duena.

5. DATOZEN URTEETARAKO HIZKUNTZA PLANGINTZAREN ILDO NAGUSIAK

Ezagutzaren alorrean ematen ari den aurrerakada ikusita, euskararen erabilera, gizarteko zenbait gunetan bederen, ziurtatzea izan beharko lukeepeertainean gurelehentasuna. Aregehiago, J.A. Fishmanek egindako planteamenduaren haritik, euskararen erabilera eguneroko bizimoduan sendotzea iruditzen zaigu arrazoizkoena.

J.A. Fishman-en ustez, etxegiroa, auzoingurua eta gertuko komunitatea euskaraz trinkotzea da euskararen transmisioaren oinarria. Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioaren erdigunea gure eguneroko bizitzaren alorrik pribatuenetan dago, hots, familiako harreman sarean eta lagunarteko harreman sarean. Beste esparru edo alorretan hizkuntza biziberritzeko egiten diren saio guztiak, epe luzera, hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa ziurtatzeko behar den oinarria lortu bitartean, epe motzera, “denbora erostea” baizik ez dira. Gertuko komunitatea irabazi ondoren beste maila edo esparruetan (hezkuntzan, administrazioan, komunikabideetan, etab.) egindako ahalegin guztiek indarra, ospea, kolorea eta zabaltasuna emango diote hizkuntzaren bizitzari baina, beren kasa bakarrik, ezin diote haren ahuldeari aurre egin ezta berau gainditu ere. Hizkuntza plangintzaren helburu nagusitzat belaunez belauneko hizkuntza transmisioa jartzea oso helburu handia eta zaila da, eta horrexegatik uler daiteke hainbat hizkuntza plangintzagileek horretan arreta haundiagorik ez jartzea.

Ohizko erabileremuak sendotu gabe, hizkuntzaren eginkizun modernoak bakarrik bultzatzeak ez du hizkuntzaren normalkuntza ziurtatzen. Eguneroko bizitzako eremuetan zabaldu eta sendotu egin behar da euskararen erabilera, esate baterako, familiako bileretan, kuadrilan, lagunartean eta, orohar, jendearekiko harremanetan, euskararen gizarte normalkuntza lortu nahi bada.

Familia oinarri-oinarrizko gune edo eremua da, familiak bermatzen baitu hizkuntza belaunaldi batetik bestera igaroko dela. Hori izan ezean, beti hutsetik abiatu beharko lukeen makina bihurtuko litzateke hezkuntza sistema, eta, onenean ere, berebiziko ahalegina egin ondoren ez luke, inoiz, familiak adinako etekin edo emaitzarik lortuko.

Beraz, eskolak betetzen duen lana mugatua da. Ezin da berea den eginkizuna baino haruntzago joan, ezta umeek eskolaz kanpo euskara erabiltzen duten ala ez arduratu. Hutsune hori betetzeko, aisialdia eta eskolaz kanpoko ekintzak landu egin behar dira, eta ekimen pribatuak ere izan dezake zereginik horretan.

Datozen 10 urteei begira diglosia egonkortzeak izan beharko luke EAEko hizkuntza plangintzaren ildo estrategiko bat. Alegia, familian, auzunetan, inguruan eta gertuko komunitatean euskaldunen sarea indartzea. Zenbat eta indartsuago izan euskaldunen sarea, orduan eta erabiliagoa izango da euskara. Era berean, erabilera areagotzearen ondorioz, ugariagoak izango dira euskarak bereganatuko dituen hizkuntza funtzioak gertuko komunitatearen barruan. Hau lortzeko beharrezkoa izango da erakundeen eta herri ekimenaren lankidetzak.

Euskaldunen arteko euskararen erabilera maila areagotzea da, beraz, aurrean dugun erronkarik garrantzizkoena. Arreta bereziz zaindu beharko da gazterien alorra. Gazte

euskaldunek beren harreman sareetan euskara erabil dezaten bideak urratu behar dira. Lagunartea, auzunea eta bizi esparru amankomunak dira jorratu beharreko eremuak. Hauetan finkatuko da eskolaren bidez lortutako gaitasuna.

Gazte euskaldunen interesak (kultura eta kirol arloetakoak) biltzen dituen gune amankomunen sarea antolatzeak bide emango luke biztanleago multzo honen euskara erabiltzeko aukerak zabal daitezen.

Euskaldunen arteko euskararen erabilera ohizko gizarte eremuetan areagotzeko hainbat programa ekintza plan orokor baten inguruan koordinatu beharko dira. Premia handiko programak famili transmisioa, gazteria eta aisialdia eta euskal gune soziolinguistikokoetako euskararen erabilera soziala zein publikoa (zerbitzuak) bideratuko dutenak dira. Bestalde, mar txan dauden eta, ebaluatu ondoren, egokitzapenaren beharra izan lezaketen programak daude; horien artean, irakaskuntzako, helduen euskalduntze-alfabetatzeko, euskararen sarbidea Administrazio Publikoetan eta komunikabideetako hizkuntza erabilerari dagokiona aipa daitezke. Hirugarren multzo batean, euskararen erabilera indartzeko osagarriak diren lanaren, kulturaren eta erlijioaren alorreko programak kontuan hartu beharko liriteke.

Programa guzti hauek bilduko litzuzkeen ekintza plan orokorra egin ahal izateko eta euskararen sustapenaren inguruan adostasun soziala eta politikoa berrindartzeko Euskararen Aholku Batzordea berrituko da aurki. Bere egitekorik nagusiena euskararen bizitasun soziolinguistikoa sendotu eta horretarako orientabide kualifikatu eta zehatzak ematea izatea nahiko nuke. Euskara gatazka girotik ateratzea eta euskararen gizarte normalkuntza lehentasun eta programa jakinen bidez era koordinatuan tajutzea da Euskararen Aholku Batzordeak aurrerantzean duen erronka.

Ekintza plan nagusi horrek honako ezaugarri hauek behintzat izan beharko litzuzke:

- Bateratzailea izatea, hizkuntza plangintzazko ahalegin guztiek norabide bera izatea bermatuko duena.
- Epekatua, jarritako helburuetara iristeko behar den denbora zehaztuko duena.
- Irekia, prozesuaren behar eta egoera berrietara irekirik egongo dena eta, plangintzaren emaitzak ezagutu eta balioetsi ondoren, beharrezkotzat jotzen diren egokitzapenak proposatuko dituen.
- Malgua, tokian tokiko zein gizarte eremukako berezitasunetara moldatuko dena.
- Osoa, helburuak, lehentasunak, eraketa, giza baliabideak, aurrekontu egokiak eta ebaluaziorako tresnak kontuan hartuko dituen.

Euskararen Aholku Batzordeak argitaratu berri duen *Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak* izeneko txostenean esandakoarekin amaitu nahiko nuke. Euskal gizarteak inoiz baino bitarteko ugariagoak ditu eskuartean euskararen gizarte erabilera normaltzeko: euskararekiko estimua eta kontzientzia, lege babesa, baliabideak, erakundeak, teknikarien prestakuntza egokiagoa, diagnosi soziolinguistiko sakonagoa eta, garrantzitsua dena, elkarte eta taldeen utopiarik gabeko adostasuna eta lankidetzak demokratikoa.